

# JEURT !

**Bertoko errebisti** 4.zk. 1995eko ekaina

### AZIENDA BURUEN KOPURUA

| | AMOROTO | MENDEXA | GIZABURUAGA | MUNITIBAR | AULESTI |
|---|---|---|---|---|---|
| Behi-aziendak | 426 | 410 | 161 | 690 | 541 |
| Ardi-aziendak | 226 | 41 | 327 | 411 | 667 |
| Ahuntz-aziendak | 47 | 27 | 40 | 132 | 116 |
| Txerri-aziendak | 25 | 10 | 1 | 31 | 44 |
| Zaldi-aziendak | 47 | 44 | 22 | 55 | 101 |
| Hegaztiak (milaka) | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 |

EUSTAT erakundeak *Udal adierazleak 1994* liburuskan argitaratu dituen datu batzuk dakarguz Geu Geutara orrira, ganadu, ardi eta baserriko animalien datuak, hain zuzen be.

Animaliar kugarienak, antza danez hegaztiak dira; seguruenik oiloa da sail honetan erreginesea. Gizaburuagan, urrunago joan barik, bi mila dagoz. Olo granjea bertan dago eta...

Hurrengo genion dagoena ganadua da, eta hain ba ezen asko, biztanleetan baino ganadu burutan gehiago. Aulestin izan ez k. Ganadu kontuan beh granjak dira nagusi; larra behia be ugari ikusi leike landetan. EUSTAT-eko datuetan agertu ez arren, lehengo korta txalxarak, hiru lau burukoak, asko urritu direna gauza jakina da.

Arditan Aulestin gehien, baina Munitibar eta Gizaburuagan be pu ito dago. Hagaitik inguruan jaten ditugu gazta eta gatzatu ederrak sasoiz danean.

Ahuntza egon badago baina ez da nagusi herriolar baten be.

Txarri kontuetara etorrita, Gizaburuagan bat baino ez dago. Honezkero ondo jan da egongo da bera, zeren 1991koak dira 1994an EUSTATek emon deuskuzen datu freskoak.

Azkenik, zaldi kopurua ikusita Aulestin 101 ei dagoz. Bai ba! Sedartzandi eta Urregarai zaldiz betenk dagoz ela.

### IBILGAILU ETA TELEFONO LINEAK, MILA BIZTANLEKO TASA

| | AMOROTO | AULESTI | GIZABURUAGA | MENDEXA | MUNITIBAR |
|---|---|---|---|---|---|
| Turismoak | 170 | 306 | 64 | 119 | 213 |
| Kamioiak | 4 | 31 | 6 | 21 | 20 |
| Autobusak | | - | | | |
| Telefono lineak (1993) | 103 | 209 | 48 | 123 | 124 |



Lehen ganadu kontuak ikusi ditugu eta hemen kotxe eta telefonuenak aitatuko ditugu. Telefonoa ugari dago baztarretan, bost herriotako ea etxe guztietan daukagu. Karuixu bai baina, behar dana be bada ela.

Turismotan telefonotan baino dexente gehiago: etxe bakoitzean batelik gora. Hau be premirazkoa da ba.
Kamiotan be itto. Basoetarakoak, konstruzinorakoak, garraiorako batzuk...
Bat bera be ez daukaguna autobusa da, baina honorako behar izaten dugunean jiretan dogu, besteran pregunlau Trolebukoei. Eta danontzako dan autobus bat badabil gure herriotan gora eta behera, Lekeitio-Gernika-Lekeitio bidoa egiteko aukera ederra, Udalek mantenduten dabe kostuaren zatirik handiena. Ederto baten eroan eta ekarteko prest izaten dogu egunero.

# AURKIBIDEA


**Geu Geutara** .................................... 2
**Editoriala** .................................... 3
**Kolaborazioa.** Alfabetatze taldea ....... 4
**Ingurugiroa.** Oizko altxorra................ 5
**Elkarrizketa.** Etxerik etxeko laguntzaileak.......................................... 6-7
**Ipuina.** Peruren arkondarak ............... 8
**Deituren jatorriaz** ............................ 9
**Hizkuntzaz.** Tomas eta Karmenenak ... 10-11
**Elkarrizketa.** Insumisioa ..................... 12-13
**Osasunaz** .............................................. 14
**Kirola.** Gizaburuagan emakumeen pala txapelketa ........................................ 14
**Eritzia** ................................................... 15
**Baserriaz.** Amorototik plazara ............ 16
**Umeek dinoskuena.** Leire eta Oibar ... 17
**Zaharrek dinoskuena.** Txomin Altzibar 18-19
**Izeia** ....................................................... 20




**AZALA: TXOMIN ALTZIBAR**
**KONTRAZALA: P.M. ALBIZU**
**ARGAZKI BATZUK: FIDEL**


***JEURT!*** **Lea ibarreko Udalen Mankomunazgoaren diru laguntzaz**


# Editoriala

rrebistagintzan gu baino aurretik bere ibili izanak dira inguru honetan.

Eduki dogu lehengo denboretan egiten zan errebista, paper, urriren baten entzutea eta hara non, beti egoten dira gordetzaileak eta, orriak eskuan daudela agertu jakun Arantza Ostekoa. Leidu ditugu bost orriak, zati haundia baserritarrentzat idatzita dago eta gainerakoa moral "onaren" adibideak eta aholkuak dira; garai haren ispilu.

Eta, zein garai? pentsatuko dozue, bada urterik ez dago bertan idatzita, baina badino "Leingo urteko abendua'ren 35'n Jesus Maria Ibarra Madariaga Juan eta Bernardina'ren semia. Zorionak." Hemendik ataraten dogu 1956ko otsailekoa dala 3. zenbakia daukan errebista hau.

Kanta, txiste, izkirimirio eta kontu jakingarriak osatzen ditue azken orri biak eta zalantza guztiak aztertzeko Lepe jakintsua erantzuten.

Zeutzat eban izena lehengo errebista honek eta zeutzat da geurea bere, nahiz eta alkarren artean zerikusi handirik ez daben.

Lehengoaren asmoa, antza danez, moral "ona" zabaltzea izan zitekeen; guk ez daukagu moralari buruz ezelako kezkarik; jendeari euskeraz leiduteko aukerea eskeintzea da gure lehenengo nahia, ez bakarra, jakina.

Jeurt gure errebista honetatik lehen egindako behar hori txalotzen dogu euskeraren aldeko urratsa izateagatik. Laugarrena kaleratzen dogun honetan pozik gagoz, bai egiten doguna batzuk eurtzat hartzen deuskuelako eta baita herriarteko lantalde nahiko sendoa eratzea lortu dogulako.

Hurrengoan bere eleraiko gayatzuz eskubete kontugaz.

J. Onaindia
M. Unamuno

**TXISTEA**
Kalean zehar bazihoazen lagun bi, bat burusoila (ilebakoa) zen eta adarjotzaile galanta.
Kalearen beste aldetik gizon konkortu bat (Lepoixdun bat) zetorren.
Orduan burusoilak esaten dio bere lagunari: "Barre pixka bat egin behar diagu konkortu honen kontura."
Albotik pasatzerakoan burusoilak konkortuari galdetzen dio:"Zer daramak botila horretan?". Orduan konkortuak behetik gora begiratuz erantzuten dio: "Zure orrazia, putakume hori!"

**IPUINA:** *Abadea eta sakristauarena.*
Herri txiki baten abadea eta sakristaua bizi ziren. Herriak txerria hiltzen zuenean, opariak hartzen zituzten eta gauzarik onenak abadearentzat izaten ziren. Asko gustatzen zitzaizkion.
Horregaitik, txerria hazi eta haundia egin zenean hiltzea pentsatu zuen.
Denbora batera, hil zuen txerria, baina opari ordezkoak eramatea tokatzen zitzaion eta abadeak txerria gela batean gordetzea pentsatu zuen, baita gorde ere, eta herriari ohostu egin ziotela esan.
Baina sakristauak gauean mahats arbotian gora igon eta txerria bere etxera eraman zuen.
Goizean abadea jaiki zenean, txerria falta zitzaiola ikusi zuen eta sakristauari esan zion ohostu egin ziotela. Eta sakristauak erantzun:
"Horrela, horrela esan behar duzu, herriak jakin dezan". Baina abadea estu zegoen eta berriro ere...
-"Benetan esaten dizut".
Eta sakristauak...
- "Horrela, horrela esan behar duzu, herriak benetan sinets dezan"
Eta horrela geldituzen abadea aho bete hazurrekin.

**ESKUTITZA**
Kaixo lagunak.
Aulestiko guraso talde bat gara eta euskara batua ikasten ari gara. Honekin ez dugu esan nahi euskaraz ez dakigunik, aulestiarrez primeran moldatzen baikara, baina konturatu gara hor daudela gure seme-alabak, egunkaria, telebista eta abar, eta honez gain herri euskaldun baten bizi garela.
Hau dela eta, interesgarria ikusi dugu ikastaro bat egitea euskararen berreskurapena denon lana delako.
Aurten seiko talde batek hartu dugu parte eta esperientzia oso ona izan da.
Astean lau ordu izaten dira eta klaseko orduak azkar pasatzen zaizkigu gure irakaslea oso jatorra delako eta jolas giroan ikasten dugulako.
Hona hemen ikastaro honek guretzat dituen abantailak:
- seme-alabei euren ikastolako lanetan lagundu,
- Lotsa barik eskutitz bat edonora bidali,
- egunkaria, udaleko oharrak, nobelak eta abar irakurri eta ulertu,
- idazteko orduan ortografiazko akatsak zuzendu,
- eta berriro ikasle garaia gogoratu.
Klaseko bi orduak ez dira izaten bakarrik ikasi eta ikasi, tarteka-marteka txisteak, anekdotak eta barre egiteko aukerak ere egoten dira.
Badakizue zer esan nahi duen TXITEAN-PITEAN edo SORGIN AFARIA?
Jakin nahi baduzue anima zaitezte hurrengo ikastarorako, ez zarete damutuko eta bukaeran txiste pila jakingo dituzue, goian aipatutako puntu garrantzitsuak ahaztu barik, jakina.
Ezin hobeto pasatuko dugu euskera ikasten eta denon artean gure hizkuntza sendotzen.
ANIMA ZAITEZTE!!! AGUR BEROA.
Aulestiko alfabetatze taldea.



**Oraingo honetan, Oizen inguruko barria edo han eta hemen batu doguzan notiziak dakarguz. Jaietatik hasiko gara eta honetan esan behar dogu gaur egun baino sasoi hoberik ezagutu dabela San Kristobalez ospatzen dan jaiak.**

# Oizko altxorra

Orain dala 50 bat urte herri askok ipinten ebezan txosnak, euren artean Garaik, Bolibarrek, Maurrek (edo Ibarrurik). Jaia beti San Kristobal egunean bertan ospatzen zan eta jakina, altzatu beharreko guztia astoz edo burdiz altzetan eben.

Gaur egun zelaian egiten dan erromeria orduan ez ei zan bakarra izaten. Zelaikoa beti Munitibarko herrikoa eta besteak gorago izaten ziran Kurutzerako bidean, baina danak batera.

Sasoi haretako soinujotzaile batzuk honexek ziran: Busterri Mendiatakoa, Serafin Zugaztietako kaminero, Basilio Txiki Ajuriaskoa. Erromeriak ilundu orduko amaitzen ziran eta beherunz koan "Mazkan" jarraitzen eben.

Munitibar inguruko jendeak, Urrutxun be egiten ei eben erromeria menditik etozenak. Hanbren be sasoi baten egiten zan; berandu ago Gerrikaitzen egiten hasi zan eta baiezkero ez batean ez bestean. Erromeriak be bat baino gehiago ziran legez, mezak be bardin.

Oizera jai egunean bakarrik ez ziran joaten, urtero Ajuriasetik San Gregorio egunean, maiatzaren 9ean, alkatea, auzoko jendea eta herriko maisua eta umeak Oizera altsatzen ziran letaniaz. Gosan Hanbretik joandakoekin batzen ziran eta San Kristobalen ermitan meza emoten zan.

Eta Oizko kontuekin gabizela ezin itxi alde batera lurra bera. Oiz mendiko lurrak "usak" ei ziran.

Diñoienez, Mendizabalen desamortizazio garaian, eta aurretik lehen usa ziren terreno ugari pribatizatu egin ziren. Horregaitik, Munitibarko herribaso gitxi da bertan. Ez zan bardin gertatu Berrizko herriari jagokozan lur sailekin, bere jabetzu agertuko eban antza eta gaur da eguna herribaso direnak gehienak.

Eta amaitzeko zera, inguruetan esaten dan legez, Oiz urrez beteta ei da; aintzinako gerraren baten urrez beteriko hainbat zaragi lurperatu ei ebezan eta, Oizera ostera joateak haize freskoa eta garbia baino zeozer gehiago emongo ahal deutsu!.



# Etxerik etxeko laguntzaileak

**Badira Lea Ibarrean premina dabenei laguntzen etxez etxe ibilten diren auxiliarrak eta eurengana joan gara kontu batzuk jakiten. Hauxe da esan deuskuena.**

**Noiz eta zelan hasi zinien lan honetan?**

- Zerbitzua emoten 1985ean hasi ginen eta lanbide honetan langabeziatik urteteko sartu ginen.

**- Guk sarritan asistentak deitzen deutsuegu, baina zuek auxiliarrak zarie, ezta?**

- Bai, jendeak asistentak deitzen deusku, baina horretarako unibertsitateko karrera bat ikasi behar da. Asistente bat badogu, Izaskun, danok koordinatzen gaituena, baina gu auxiliarrak gara. Gu etxez etxe ibilten gara laguntza eskeintzen.

**- Zer egin behar da auxiliarra izateko?**

- Guk lehenengotan ez geunkan titulorik, lanean genbizala ikastaro bat egin gendun eta tituloa atara. Betebeharreko beste baldintza batzuk euskeraz jakitea, kotxea izatea eta Lea Ibarrekoa izatea dira. Gero entrebista bat egin eta aukeraketa egoten da.

**- Zein da zuen lana?**

- Batzuk pentsetan dabe bakarrik etxeko beharrak egiten doguzala, baina ez da hori gure eginbehar bakarra. Guk laguntasuna eskeintzen deutsegu bakarrik dagozanei: kontuak esan, euren historiak entzun, sendagilearengana lagundu, medikazioa kontroletu, garbitu, etab. Esate baterako ez da erreza batzuk durxan sartzea. Izten deuskuen ginoan laguntzeko ahalegina egiten dogu. Bakoitzaren beharrizanaren araberakoa da gure lana. Lan polita da, nahiz eta batzuetan gatxa izan. Pertsonekin beharra egiteak bere alde on eta txarrak ditu, bakoitza mundu bat dalako. Kanpotik gauzak errez ikusten dira, baina lehau gogorra da. Batzuk oso txarto dagoz eta euren ondotik aldetzeak pena emoten dau. Sarritan bakarrik bizi dan jendearengana joaten gara eta berak gehitxoago geratzeko eskatu, pertsona horrek iztea gogorra izaten da.

**- Auxiliarrak zenbat zarie?**

- Bost eta asistentea. Uda partean jende gehiago izaten da sustituzioak eta egiteko.

**- Zeuen artean zelan koordinatzen zarie?**

- Esan behar ekipo lana egiten dogula, horregaitik hilean behin batzen gara Mankomunitatean edo Okamikan. Batzar horretan bakoitzak bere kasuari buruzko azalpenak emoten ditu, besteak entzuten daben bitartean.

**- Ze baldintza bete behar da zuen laguntza jaso ahal izateko?**

Arazo sozialen bat, beharrizanen bat euki. Esko-

ria udaletxean aurkezten da eta gero batzorde batek arazo hori aztertzen dau. Errekurtso ekonomikoak be kontutan hartzen dira.

**- Non eskatu daiteke informazioa?**

- Udaletxean, Mankomunitatean edo asistentearengana joan.

**- Zenbat diru ordaintzen dau laguntza eskatzen dauan etxe bakoitzak?**

Baremo batzuk dagoz ipinita, bakoitzaren errekurtso ekonomikoen eta kasuen arabera.

**- Eta zeuek badaukazue inungo laguntzarik?**

- Bai, dirua jasoten dogu Udaletxetik, Aldundatik eta Mankomunazgotik.

**- Lea ibarretik kanpora lanik egiten dozue?**

- Ez. Bakarrik eskualde honetan ibilten gara.

**- Zenbat orduko lana da zuena?**

Egunean bakoitzak hiru edo lau ordu.

**- Zenbat etxetan egiten dozue beharra une honetan?**

- Hamahiru etxe ditugu eta bakoitzean gitxi gora behera, ordu eta erdi egiten dogu.

Etxe honeek Aulestin, Munitibarren eta Mendexan dagoz. Ahal bada, bakoitzak beti etxe bardinean egiten dogu lana, nahiz eta aurten aldaketa batzuk egon diren.

Bestalde, momentu honetan ezin dogu laguntza gehiago eskeini: geuk Diputaziotik jasoten dogun diru laguntzea be murriztu egin dalako. Diputaziotik gitxiago jasotean, udalak dira gehiago ipini behar dabe, baina honeen egoerea be ez da bapebe ona. Guk errekurtso ekonomiko barik ezin dogu laguntza gehiago eskeini. Gainera, aurten kuotak be altzau egingo dira, etxe bakoitzean egin beharreko orduak murriztu eta proportzio berean gure soldatak be jaitsiko dira.

**- Laguntza eske dei asko jasoten dozue?**

- Ez, ia betikoak, laguntza hori premina preminazkoa danean eskatzen dabe. Ahaleginez, etxekoen artean konpontzen dira, etxeetan desezagunik sartu gura ez dabelako. Gainera jendeak ez dauka informaziorik be. Eurentzat luxua da eta azkenengo momentura arte itxaroten dabe.

**- Nagusientzako egiten dozue beharra ala edonorentzat?**

- Beharrizana duen guztientzat.

**- Urteko zein alditan jasoten dozue deirik gehien?**

- Udaberrian eta udagoienean.

**- Dinoe uda partean nagusiak Benidorrera joaten dirala, igartzen dozue bajonazorik?**

- Gureak ez dira joaten.

**- Bertara eurek zaintzen joango zinakeez?**

Bai, oporrak pasetan hilabete bagen, euren kontrolatzaile legez. 'Animatzaile sozio-kultural' moduan. Paseoan ibili, armozua jan...

**- Zeuek etxeetan ondo zaintzen zaitue?**

- Ez dira txarto portetan, behin konfiantzea hartu ondoren.

**- Antxinako kontu ugari ikasi dozue?**

- Bai, historia bakoitza sarritan kontetan dabe...

**- Uniformerik erabilten dozue?**

- Bai, bata zuria.

**- Zuen artean ez dago gizonezkorik, zergaitik?**

- Ez dago gizonezko auxiliar askorik, uste dogu Barakaldon dagoela bat. Antza danez bildurra egiten dira, andrazkoen beharrtzat joten dabe, baina ez dauka zertan holan izan. Gainera, etxeetan be jendeak emakumeak eskatzen ditue eta ez mutilak.

**- Behin auxiliarrak izanda, nagusientzako egoitzetan beharrik egin zeinkee?**

Bai, orain gainera esperientzia dogu eta honek asko laguntzen dau.

**- Ezelako anekdotarik gogoratzen jatzue?**

*Maribik dino:* - Bai, nik bazkaria etxean prestatuta eroaten dot eta behin bazkaria prestatu eta etxean itzi neban ahaztuta.

**- Nagusi asko dagoala ikusiz, zuen lanbide honek badauka etorkizunik?**

- Momentuz lana nahikoa zituatuta daukagu. Guri Aldundiak emoten deusku laguntzea eta, beraz, euren araberakoa da, baina momentuz, baietz uste dogu.



**Lea Ibarreko bost lagun dira auxiliar lana egiteko hautu diranak.**

**Tere Bengoetxea, Amaia Onaindia, Jabi Onaindia, Anaje Uriguen**

# PERUREN ARKONDARAK

Marixek egokezan hamahiru arkondara barri Perutxzako. Ta Peru egoten zan: "Baina gure Marixek, noz jantziko ete deust nik horretariko arkondara bat?"

Bere modun zenbat bider esa ten eban horixe! "Baina noz, baina! Heltzen da Gorpuzti egune, Aste Santu egune, ta prozesinoetarako be ez deust jazten baina! Beti nabil ni honexekin arkondara zaharrekin. Egingo neuke ta, hilda be, hilten nazenean bertan be, hanek erreuskadala nik jantziko arkondara barri bat. Ba, egin behar dot ba egun baten bat, egin behar dot ba, il banitz lez bere aurrean egon."

Ta esan da izan. Egun baten Peruk, gexorik balego lez egon zan apur baten, ta bat gero hil zala ta, han geratu zan.

Ta: "Encee" -egin eban Marixek-, il yaku ba gure Peru! Honako honakorik ta arkondara barriak, ointxe bat edo bat jantzi beharko deutsat ba".

Ekarri zittun Marixek, ta hartu eskuan bat eta: "Encee! hau be kirru ederra ta, hain ederra ze hau be ez dago deutsat jantzi ba".

Beste bat eta, ha be ez. Beste bat eta, ba be damaz. Ta eskuetan euki zittun hamahirurek, ta danak damutute itzi zitom. Baina zegaz edo hagaz jantzi behar eban.

-"Zer egingo ete dot baina nik? A, badakit zer egingo dotan. Amen dauket bai kotu matazak itxauskian batuta dagozenak, ta honetarikoxe ariagaz batu-batu batu egingo dot".

Ta bai egin be Marixek. Hasi buruan eta bitzera batu eban barukin, buelta ta buelta ta buelta ta buelta, dana batu eban. Begittu eutsan amaitu ebanean beren bierra, ta esan eutsan:

-Ai Peru, Peru neurie, zer dirudizu?

-Ai Marixe, nik kitarrie

Toti IBARROLA: Cantus Vasco, Colum bia diskoetxea, SCGEN0464



# DEITUREN JATORRIAZ

**MADARIAGA:**

MADARI, -AGA, Madari leku.

Gipuzkoa eta Bizkaiko leku askotan agertzen jaku abizen hau. Antzuola, Azkoiti, Bergara, Lezama, Muxika eta Axpeko etxeak honako armarria daukez: Azula urrez eta gorriz egindako bost biribil eta urrezko lau izar. Hegala bere urrezkoa da kate azal bategaz. Bustarri: berdea, urrezko lau banda eta txirlak bere urrezkoak binaka ipinita. Untaz ur uhinak azulez eta zidarrez eginda. Hegal guztia gorria, zidarrezko lau ilargi eta urrezko beste lau izarregaz. Beste etxe batzuetako armarria: Gorria zidarrezko sei txoriegaz. Auñamendi entziklopediak makina bat Madariaga itsasgizon, idazle, militar, eskultore, erlijioso, pintore, abokatu, pelotari, futbolari, e.a. aipatzen ditu. Danen artean batzuk aukeratu behar eta hona hemen:



**Julen Madariaga** 1933an Bilbon jaioa. ETAren fundatzaileetarikoa.

**Ramon Madariaga Azkuenaga**. Bilbon 1868an jaioa, abokatua. Bigarren Errepublikako denboran Euskal Autonomia Estatutuaren egile garrantzitsuenetarikoa izan zan. Geroxeago, 1936an, Gernikan bera izan zan botorik izan eban bakarra, aukeratu eban Jose Antonio Agirrez aparte.

**Bartolome Madariaga Garate** Elxebarrin jaioa 1766an, karmeldarra. Juan Jose Mogel markinarraren lagun izan zan eta euskeraz idazlan batzuk itxi euskuzan.

**Manuel Antonio Madariaga Uztara**, "Patakon", XIX mendeko bandolero bizkaitarra. Galdakaon jaio zan 1796an eta Afrikan hil. Makina bat lapurreta eta krimen egin zituen 1826tik 1830era bitartean. Bizkaian famatua izan zan mendearen azkenera arte.





**MALAXETXEBARRIA:**

MALAX malats-etik dator. Serdo, mendre edota emankorra esan nahi dau eta ETXEBARRIAk danok dakiguna. Aulestikoa da abizen hau, 1732an sortua; ez dogu ezer esan barik Aulestiko auzo ikusgarri bat dala Malax. Malaxetxebarriaren armarririk ez da agertzen. Malaxena bai ostera, orduan, berorrena ipiniko dogu: Gorria urrezko kanpainadenda bategaz. Etxebarria horrengo baten ikusiko dogu, bera bakarrik.



**Fernando Malaxetxebarria**, 1919 urtean Bizkaiko diputatu nazionalista.

**Jose Malaxetxebarria** mende honetako euskal idazlea, jesuita.

**LAKA:**

LAKA garau eta labore neurri bat da, erderaz "Celemin" deritxona. Sorrere Mendaro, Markina eta Berriatun aurkitzen dogu. Armarri bi dagoz. Lehenengoa lau zatitan banandula dago eta zidarrezkoak diren zati bietan basurde beltza agertzen da; beste zati biak azulak dira eta urrezko gazteluak dirze. Beste armarria zidarrezkoa da eta txakur bi dagoz kolore naturalez eta kollar gorriz.

**Antonio Laka** harrijasotzaile gipuzkoarra. 1920 inguruan agertzen da.

**Xabier Laka** Ondarroako harri eskultorea da 1954ean jaioa.

**Jose M. Laka Salzedo** futbolaria. Athletic 1921ean kopa txapeldun izan zenean, taldeko jokalaria zan.





**LEGARRA:**

LEGAR edo LEAR, -A, erderaz "grava". Gipuzkoako toki askok ikusi dabe Legarra deituraren jaiotza: Amasa, Altzo, Irun, Billabona, Astigarraga eta Altzelak. Bizkaian Aulestik. Zazpi armarri agertzen dira, baina lau Gipuzkoakoak direnez ez ditugu deskribiduko, beste hirurak ez dago zehaztuta nongoak diren. Bata berdea da eta urrezko dorre biribil bat dauka. Beste bat gorria, urrezko dorrea zidarrezko ateagaz eta galdara baltza dingilizka. Hirugarrena bere gorria eta ditu en gurutzak zidarrezkoak dira.

Legarra atleta. 1945ean Anoetan ospatu ziren Euskadiko Txapelketan txapeldun izan zan 8-4 markaz "60m/H" modalidadean.

**Juan Mari Legarra Etxeheste**, XVIII. mendekoa, Andoaingoa. Felipe V.aren kontseilukoa eta Haziendako Idazkari izan zan; baita Gipuzkoako diputatu bere 1724an.



**Antonio Legarra Jaio**, "Legarra". Ibarrangelun 1918an jaioa. Eskuzko pelotan Bigarren kategoriako txapelketan parte hartu eban 1941ean Gasteizko frontoian. Zabaletagaz batera eta, esaten danez, Unilla, Txikito de Durango, Etxaniz anaiak, Iruneta eta horien pareko pelotaria zan.





Auñamenditik T. Malleak Itzulia.



Franziska Landeta, Narea Aldekoan jaio zan eta Aulestia kalean bizi da. Bagenkien bertso zalea eta kantaria dana; gaztetatik dauka bertsopaperak kantuz ikasi eta kantatzeko zaletasuna.

Memoria bere ez dauka txarra, berak besterik esan arren.

Markesaren alabaren bertsoak kantau eustazan, baina horreetatik aparte inondik ere ezagutzen ez nituen batzuk bere bai. Eurotan ama-alaben arteko diskordia kantetan dau Franeskek. Alabarekin ezkontzeko egokiena Tomas ala Jose dan, ez dira konformetan eta hara zer dirautzen alkarreri: (Bertsooi dagokien doinuaren partitura S. Kortabitartek egin dau).

# Tomas eta Karmenenak

1

-Ama alabak gaude diskordiarekin
esaten noye zelan nai duenak jakin.
-Eskontzenais da es itxi gustokuarekin
ama enas jarriko zuk esanarekin.

2

-amak alaba nahi txat ondo ikusi
neketan nauelako orain arte asi
-Aplikatuko nuke nix nun ondo bizi
es txorakeriirako eskontzarik asi.

3

-Tomas eskondueko mais allegatzen xat
Tomas mutil polite iduritzen xat.
Txit kariño andixe daduka niretzat
ta konformatzen gara biok alkarregaz.

4

-Tomas sertarako den ume mokosue.
bisimodue ser dan nundik dakisue?
orain artien inok emoten disue
gero isengo dala uste al desue?

5

-Tomas mutil polite da abille jokuen
kuartu ibilteitu dabilen lekuen,
es al ditu itxiko gustixek kanpuen
Tomas mudatuko da eskondutakuen.

6

-Estona es mudatuko engañatze es banois
ik ugarriko dion eskonduten baais,
artu biarko ditun biskarrekuak mais
miseria negarres er ibiliko ais.

7

-Ama desafiorik es egin geroko
miseria negarres es nais ibiliko.
Tomasek maite nau ni es nau es ni jako
kariñosuagorik es saigu jaioko.

8

-Jose den iretzako mutil gustokue
langille ta sintzue pare gabekue.
-Serresaten dit ama erotu al saio
gison orreri barres egoten nasaio;
asen burutik es da kontu ori jaio
eskonduterik ari erortzen etzaio.

9

-Josek eskondu nai din umill egon adi
es jardun ausentzian beti personari;
begiratu xon arca kondute onari:
langille ta sinzue ta aberatza on ori.

10

-Ama gastiagan det nik amealixue
zarra pretenditzie da kontrarixue;
agure lepo makur praka jarixue
iduritzen xat dala neure erixue.

11

-Alaba iz oxar oyek sar iskan atzera
hestela or nona laster makillas jotzera;
Jose etorriko jana jayian etxera
biok eskonduteko arreglatutzera.

12

-Ama mutil sar orrekin datorren jayian
nunbait funzioren bat ikusi nayian;
agudo juengo da datorren bidian
ostikuaz jo eta bueltaka aidian.

13

-Erakutsi nai neuskinan ser modutan bisi
buru gogorra daukan de ezin adierasi;
nai denan bat egisan, orra libre itxi
es etorri negarres bixer edo etzi.

14

-Ama etxera negarres etorriko es nasu
neure gustua egiten isten badidasu.
Jose begixetatik kendu egidasu
Tomas orrekin arren ipini nasasu.

15

-Amak emanda isen da kontratu aitamen
baina berien firme dago alaba Karmen;
seinek bere gustue egin bier daben
ala gertu dadille. biba Tomas arren.

# Tomas eta Karmenenak



**Argazkian ikusten dituzuenak Aulestiko insumisioaren aldeko asanbladaren partaideak dira. Zer letxe egiten dau insumisioaren aldeko talde batek Aulestin?**

# bat-bi-bat-bi... ...insu-miso-eia-di

## iNtsuMisioa

**Noiz sortu zan eta nortzuk osatzen dabe asanbladA hau?**

- Insumisioaren arazoa eta arlo horretan Aulestin egoan hutsunea ikusita, asanblada baterako deia zabaldu genduan urte hasieran (1995). Orduan hamabost hogei lagun batu giñan, bai neskak eta bai mutilak, eta harrezkero sarritan batzen gara. Jakina, talde zabala danez, ez gara beti bardinok egoten.

**Zergaitik neska eta mutilak?**

-Militarismoak danongan daukelako eragina, neska, mutil, zahar nahiz gazteengan. Soldadutzea militarismoaren alde bat besterik ez da baina badaz beste alde txar asko, guztiongan eragina daben balore negatiboak: matxismoa, ierarkia, menpekotasuna, indarkeria.... Militarismoa autoritarismoaren eta faszismoaren adierazgarria da eta horrek guztiok harrapatzen gaitu, horregaitik danok egin behar deutsegu kontra be.

- **Zein asmogaz sortu da asanblada hau?**

- Gure lehen helburua gazteak intsumisiorantz bideratzea da, gero Aulestiko jendea kontzientziatzea eta, azkenik, edozein talde antimilitarista legez, gizarte desmilitarizatua lortzea.

**Zergaitik Aulestin holako mugimendu bat?**

- Aulestin urte honetan insumisoak dagozalako eta denpora gitxi barru soldadutzara joan beharrean jende




asko dagoelako. Batez be horren premina ikusten zalako.

**Inguruko herrietan zelako mugimendua dago?**

- Aulesti eta inguruko herriak erruralak dira eta nahiko sakabanatuta bizi garenez, jendea batzea ez da erreza. hemen be orain arte ez da egon honako mugimendurik baina orain bai, beraz, baten bat animatzen izango litzateke konkus ondoko herrietan be. Gu geu horretan laguntzeko prest gagoz. Bestalde, Ondarru, Markina eta Lekeition badagoz insumisioaren aldeko taldeak.

- **Zer da orain arte egin dozuena eta oraindik aurrera zein asmo dozue?**

- Orain arte talde moduan sendotu egin gara eta insumisioaren eguneraren azterketa egin dogu. Bestalde, Aulestiko udalak insumisioa apoiatuz onartuta daukan mozioa sakondu dogu, insumisioaren bidea hartzen dabeen gazteak udalaren laguntza izan dagien. Gure hurrengo pausua mozio hau udalaren plenoan aurkeztea izango da eta onartzen badabe horren jarraipena egitea. Aurrerantzean, ahal danik eta informazio gehien batzen eta zabaltzen ahaleginduko gara eta bestelako ekintzaren batzuk be burutuko ditugu, nahiz eta oraindik zehaztu barik daukaguzan.

- **Zergaitik ez soldadutzara?**

- Lehen esan dogun legez, gu militarismoaren kontra gagoz eta horren adierazgarri nagusia ejerzitoa da. Ejerzitoa dagoen lekuan ez dago bakerik, indarkeria da nagusi eta gainera, balore txar asko zabaltzen dira horren bitartez. Ejerzitoaren erakusgarri nagusia soldadutzea dan legez, ez goaz soldadutzara. Kontutan izan behar da baita, soldadutzara doazen gazteak gogoz kontra, derrigortuta doazela.

- **Zergaitik insumiso eta ez objetore?**

- Objezioaren bidea hartuz gero, soldadutzara joan gura ez danez, gazteak zigortu egiten ditue, beste behar batzuk egiten derrigortuz: hau beste inposaketa bat baino ez

da. Sarritan esperientzia handia behar dan lekuetan ipinten ditue gazteak, esate batereko Gurutze Gorriar, horrek dituen ondorioekin. Objetoreak, gainera, udaletxe eta horrelako lekuetan lanpostuak betetako erabiltzen ditue, hau da, zentimorik ordaindu barik langile batek egingo leuken beharra eragiten deutse, gainera soldadutza bera baino luzeroago iraun eragiten deutse ordezko zerbitzuan. Hau gaur egun dogun langabezia taseagaz lotsagarria da.

**Talde politikoek zelan ikusten dabe insumisioa?**

- Orokorrean ondo. Euskal alderdi polikikoak insumisioaren alde dagoz. Alderdi Popularra eta Alderdi Sozialistea, jakina, horren kontra agertzen dira. Eusko Jaurlaritza be insumisioaren alde dago.

**-Zelan dago Euskal Herrian Insumisioa?**

- Gero eta indartsuago. 1994an gazteriaren erdia baino gehiago ez zan joan soldadutzara. Beste alde batetik Nafarroa erabili dabe laborategi moduan, esperimentuak eginez insumisoekin eta itxaroten ebenaren kontrako emaitzak izan ditue. Zenbat eta insumiso gehiago sartu dituen kartzelan, insumisioak orduan eta apoio handiagoa izan dau.

**Zer egin behar da Insumiso izateko?**

- Soldadutzara joateko deiari itxaron eta hau heltzen datean bueltan bialdu edo kasurik egin ez. Handik denbora batera Gernikako epaileak deitzen dau arrazoiak eskatzen. Momentu horretan baikoitzak erabakitzen dau epailearengana joan ala ez. Juez honek egiten dau eskaria eta arazo guztia Bilboko epaitegiaren esku geratzen da. Epaiketea bateko epea interes politikoen araberakoa izaten da.

**- Insumiso izateak ze ondorio dakar?**

- Ondorio positiboa negatiboa baino gehiago da. Azkenean kortu nahi dan helburuak justifikatzen ditu gauza negatiboak.

**- Insumisoak badabe gizartearen apoiorik?**

- Bai, gizarte ia-ia osoa insumisoen ideiekin bat dator eta erakusten daben alkartasuna handia da. Kaleko jendeak insumisioaren ideiak ulertu eta onartzen ditu eta eleizea be insumisioaren alde agertu da behin baino sarriago. Bestelako gizarte ajenteak be, esate bateko sindikatoak, insumisioaren alde dagoz.

**- Gurasoak kezkatzen dira?**

- Bai gurasoak asko kezkatzen dira eta soldadutzak gazteei beste buruhauste edo gehiago emoten deutse. Gurasoek badakie euren semeak gogoz kontra doazena soldadutzara baina kartzela gurasoak eta gazteak bildurtzeko arma moduan erabilten da eta hor sortzen dira euren buruhausteak. Beira kezkak sarritan informazio faltak eragiten dira eta gu gurasoei dogun informazio guztia eskeintzea saiatzen gara.

**- Aurrera begira zelako etorkizuna ikusten dozue?**

- Ez dago atzerabiderik, gero eta insumiso gehiago dago Euskal Herrian eta soldadutzea kendu beharko daben unea helduko da. Orain Kode Penalaren aldakera egingo da. Kartzela zigorra kendu le kela esaten da, horren ordez beste zigor batzuk ipintzea: administrazioan beharrik egin ezina, kotxeko karneta kentzea eta antzerakoak. Holan izan da be horrekaz segiduko motiboak ge ditzen dira soldadutzara ez joateko arloan. libre moduan ikusten doguzlako eta aukera libreak ez diralako zigortzen.

**- Kaleko jendeak zelan lagundu leike?**

- Batez be gazteak insumisioako animatuz, ekintzetan parte hartuz eta objetore laskala eginez edo antzeko sinbolo moduan.

**Zer esango zeunskizue herritarrei?**

- Talde hau zabala dala eta ez dala inor bere ideiagatik kanpoan itxi gaz. Insumiso egiteko bakoitzak dituen arrazoiak desberdinak dira eta asanbladan bereziz, gazteak ondo ikusten ditugu. Lokal ireztota zabalik dago beraz. Ezer gehiago jakin gura baneu gero, Sa belesti Garaio eta hai berteratik kanpokoek be, galdetu.

Baseon

## KALEAN INSUMISIOAZ GALDEZKA

**1.- Zein da zure iritzia insumisioari buruz?**
**2.- Zer esango zeunskio soldadutzara joateko edadean dagoen gazteari?**

**ROSARITO UNAMUNO:**

**1.- Nahikoa daukee oraindik insumisoak. Ondo egiten dabe, soldadutza denbora alperrik galtzea da eta.**

**2.- Ba, joateko behintzat, inori be ez. Animatuko neuke jentea insumisiorako baina hori oso personala da dauken arazoagaitik.**

**EDUARDO AGIRRE:**

**1.- Ondo lopatzen dot insumisioa, ni gaztea banintz ez nintzateke soldadutzara joango.**

**2.-Norberaren borondatearen gauza da, kontsekuentziak be handiak dira eta analizatu beharko litzatekez erabakia hartu aurretik. Soldadutzaren kontrarioa.**

**SABIN KORTABITARTE**

**1.- Eskubide osoa dala insumisioa eta momentu honetan la obligazioa be bada Euskal Herrian, behintzat, abertzale moduan bizi dogun egoeragaitik.**

**2.- Informetako lehenengo eta gero konszientemente hartzeko erabakia; insumisoa ez dela izan behar moda dalako, baizik ela konszientemente hartu dalako erabakia. Ondo pentsatu behar da, zeren ondorioak ere gogorrak dira.**

**AMPARO IBARRA**

**1.- Ondo begitantzen jata insumisioa.**

**2.- Nahi ez badozu ez daukazu zertan joan.**

**IÑAKI BOLLAR**

**1.- Insumisioa zer dan zehaztu egin behar da: pertsona batek ez dauala egiten ez soldadutzarik ez honen ordezko prestaziorik eta hau bete ezik kartzelara zoazela. Zigor hau da Kode Penalak ipinten dauena. Baina zertarako erabili behar da Kode Penala? Nire ustez, azken neurria izan behar dau eta kalte larria sortu behar dau gizartearekiko, orduan, ez leukeela zigortuta egon behar pentsetan dot.**

**2.- Lehenengo eta bat soldadutzara ez joateko esango neuskio baina objetatu ala insumiso egiteari buruz, bakoitzak begiratu behar dauala eta norberak erabagi behar dau zer komeni jakon.**

# OSASUNAZ

Gaur egun medikamentuak hobeto bizi izateko lagungarri legez erabilten ditugu eta bizi garen garai eta inguruaren ezaugarrietariko bat dira.

Kalitatea, ziurtasuna eta eraginkortasuna dira edozein medikamentuk bete behar dituen baldintzak eta horrez gain, derrigorrezko da medikamentuak beti mediku edo adituren baten aginduz baino ez erabiltea.

Esan dagun ongizatea lortzeko, edozein lagunek izan beharko leuke medikamentuak erabilteko aukera, bere maila soziala begiratu barik, baserri inguruneetan zein hirriguneetan bizi den kontuan izan barik.

Aspaldiko urteetan jendeak gero eta medikamentu eskabide handiagoa dauka, eta ez da izango hau seguruenik gaixo gehiago dagoelako, informazio eta osasun heziketa handiagoa dagoelako baino. Gaixorik dagozanak zainduago dagoz lehenagoko denboretan baino eta gaur egun gaixorik dagoena osatzeko bakarrik barik, gaixoei aurrea hartzeko ere erabilten dira medikamentuak.

Esate baterako orain gripea eta beronen antzerako gaixo batzuei, lagun batzuentzat oso arriskutsuak izan daitezkeelako, aurrea hartzeko ahaleginak egiten dira, honan lagunen bizitza luzatzera eta bizitza kalitatea hobetzera joz.

**Arantza Castro Erkiaga. Botikaria**

# KIROLA

## Gizaburuagan gora dator notizia emakumeak palan jokoa bizia

Udan, jaietarako komisioan zeudela, jaietarako aparteko zeozer jarri nahian egitarauan, pala txapelketa bat antolatzea burura etorri zitzaien.

Ideiari bueltaka zebiltzala, ez zeukaten argi nola antolatu, neskak bakarrik, ala zer; azkenean, emakumezko eta gizonezkoen arteko indar desberdintasuna handiegia zela eta emakumeena egitea pentsatu zuten. Gainera han egon ziren emakumeak, nahiko ziur zeuden, eurak bakarrik, emakume herritarrak, ligila moduko zeozer osatzeko beste bazirela.

Ideia finkatu ondoren, hurrengo pausua bikoteak edo taldeak egitea izan zen; honetarako, parte hartu nahi zuen guztiari aukera emateko dei zabala egin zen, herriari zerrendak leku publikoetan jarriaz, nahi izan zutenek apuntatu ziren eta 13 urtetik 33ra bitarteko zortzi emakume izan ziren azkenean.

Ondoren bikoteak egin ziren eta bakoitzak zein zuen lagun jakin ondoren, asteartе eta ostegun iluntzeetan entrenamenduak hasi ziren. Hasieran ikusle asko egon ez arren, azkenerantz egoten ziren eta hauek euren komentarioak egiten zituzten.

Ligilan parte hartu zutenak bizimodu normala egiten zuten, ez zeukaten ez dieta ez prestaketa berezirik, baina batzuei ondo etorri zitzaien hezurrak eta hezur ondokoak mugitzeko, zeren zortzi emakumeren artean denetarik zegoen: urteetan palarik hartu barik zeudenak eta arituak zirenak, e.a.

Horrelako ligilak antolatzea positibotzat joten dute, motibagarri izaten direlako kirolean parte hartzeko eta deportista sentiarazten zaituelako denboraldi labur batez. Honelako gauzak egiterakoan sorpresak ere izaten dira partehartzaileentzat, batez ere pentsatzen zen baino gehiago egiteko gai dela konturatzen denean.

Honelako ekintzetan, hastea izaten da gatxena baina merezi du, bai osasunerako mesedegarri delako eta baita gustora senti daitekeelako partehartzailea.

**Gizaburutarrak**

# ERITZIA

**GIZABURUAGA. JOSE LUIS GOROSTOLA**

1.- Jokatzen dozu ezertan?

**- Gitxi asko bai, baina ez larregirik.**

2.- Diru mordoa tokatuko balitzakizu, zer egingo zenduke?

**- Jokatzen dodanaz ez dago arrisku handirik. Oin, berrehun bat tokatu ezkero, ba lenengo ta bat hilabetean egon biko neuke asimiletan; gero egingo neukeen lenengo gauzi izango litzake bierra iztea ta neure hobiak egin gelditzen jatezan urtietan.**



**AULESTI. JOSEBA URIARTE**

1.- Jokatzen dozu ezertan?

**- Bai, astero primitiban eta kinielan hilean behin.**

2.- Diru mordoa tokatuko balitzakizu, zer egingo zenduke?

**- Buff. Ba... ondo inbertidu eta bierra bapes. Lenengo egingo neukena beintzet despertadora beien gainean josi eta apurtu.**



**MENDEXA. JOSE MARI URKIAGA**

1.- Jokatzen dozu ezertan?

**- Bai, loteria eta kiniela, baina gehiago probelan, hor dago negozioa. Joaten nazen bakoitzean hogei mila hogerleko jokatzen dodaz. Behin tokau jakuzan hogei mila hogerleko beste bateri eta neuri Bartzelonan.**

2.- Diru mordoa tokatuko balitzakizu, zer egingo zenduke?

**- Hori pentsau egin behar urtenikuen. Lenengo ta bat, beintzat, bierrari itxi eta biajante ibili.**

**MUNITIBAR. KONTXI MALLEA**

1.- Jokatzen dozu ezertan?

**- Normalean ez, bakarrik Gabonetan loteria apurren bat. Primijuego be beti egitekoan baina inoiz be ez dot egin.**

2.- Diru mordoa tokatuko balitzakizu, zer egingo zenduke?

**- Zati bat neuretzat gordeko neuke, bestie etxeko artean banatu. Lagunekin farra handi bat eta aldi baterako bierra itxi eta bidaiatu egingo neuke, baina hori aldi baten, ez betiko.**





**AMOROTO. GABIOLA**

1.- Jokatzen dozu ezertan?

**- Bai, noizean behin.**

2.- Diru mordoa tokatuko balitzakizu, zer egingo zenduke?

**- Segun zenbat tokatzen dan. Asko tokatu ezkero, lehenengo oporrak hartu eta gero ikusiko neuke.**

# Amorototik plazara ortuari freskue



Oram dela laruegitahamar urtetik, Itziarren amonagandik hasi, gure amaren eta beran ondoren Itziar bera, tradizioa jarraituz. Plazara eroaten dira. Itziar amonarekin bajatu zen lehenengoz.

**- Lehenengotan zelan bajatzen zineten eta zer ekartzen zenuten?**

- Astoarekin baratzen giren, eta ni be holan hasi nintzen, hamar-hamabost urte nituela. Nire amonak, gehien eraitzen zeuena ortuarra zen; arnak arrautzak eta orain ortuariekin jarraitzen dugu.

**- Aldatu da jendeak plazarako ohitura?**

- Gaur egun ohitura gutxi dago plazara etortzeko, ia bapez esan dezakegu, eta datorrena ez da jende gaztea. Honen ondorioz, jendea dendetara mugitzen dela da eta horrek plazarako zen jenerora dendetara batatzera eramaten gaitu.

**- Zeri uste duzu begiratzen diola jendeak, kalitateari?**

- Nire ustez kalitateari baino itxurari begiratzen dio gehiago, ederra bada... Kanpotik datorren jenerorarekin ezin dugu konpetitu, prezioz, kantidadez..., baina bai kalidadean: Esate baterako sustantzia kimikoekin hazten den "tomate hibridoa", horrek baserrian hazitean, lurrak dituen mineralak faltako ditu. Hau kantidade handiak lortzeko dauden sistematikoa bat da. Hemengo produktuek askotan ez daukie kanpokoaren itxura eta piska bat karestiago izan daitezke, kantidadie be, ez da kanpokoa bezala hazteko, baina lurretik hazten dira eta betiko eran hazten dira.

**- Lehendik hona, plazarako generoari asko igon al zaio prezioa?**

- Ez, aspaldiko urteetan ondo berdin jarraitzen du.

**- Hasi zinenetik gaur egunera, aldaketarik somatzen al duzu erosteko eran?**

- Bai, erosera deitu eta nolakoa den jakin gabe erosten da, komoditadeagatik.

**- Baserritik bertako landarak lortzeko, lana asko arindu da?**

- Bai, orain lana traktorearen bitartez eta, asko arintzen da, baina traktorak ez dute zaintzen lurra lehen bezala.

**- Hilberak, sasoian sasoikuak, zaintzen da hau?**

Ahal den neurrian zaintzen dugu, baina kontraesan asko daude honetan. Lurra prest dagoenean, ez diegu kasu askorik egiten eta askotan hobeto irteten du. Gure amak dio, Markinako fraile batek esaten zuela hilberarik onena, aroa dela.

**- Baserritik bizimodua ateratzeko?**

- Gaur egun dagoen bizitzeko eran, ordutik bete eta kito eta horrela ezinezkoa da aurrera eramatea.

**- Hasteko zer behar dela uste duzue?**

- Urte batzutatik hona, lurretik landareak lortzeko lehen baino asko gehiago zaindu behar dira, hau ozonoaren eragina da, plaga gehiago dira eta kontra egin behar zaie, denbora ilunagoa da eta horrek landarea hazteko eragin handia du, beste mila gauza ere badaude kontutan edukitzeko: lurra zaintzen, geldirik eduki behar den denbora, gaixoak kimika gabe kentzen; adibidez, pulgoia badago, asunen eta egosita erabiliz kendu daiteke. Baina tresneria derrigorrezkoa da.

**- Entzutea dugu, etorkizunaren aurrean, baserrian ere aldaketa asko egongo direla, agrupazioak eta abar. Zer esango zenduke?**

- Hasile gaur Gizaburuako Amorokomunazgoan bildera batzuk egiten transformazioaren inguruan. Beste alde batetik, "Sasoi" taldea dugu sortua, bertan, zazpi baserritar gaude ortuariekin ibilten garenak, lau baserri Gizaburuakoak eta bi gara Iruitzen, eta Markina, Berriatu, Aulesti eta Amorotoko herriak hartzen ditu. Gure pentsu garrantzizkoena, abono eta kimikarik erabili barik, produktu ekologikoen bitartez gure produktuak haztea da, honek ondorioa ere badu; denbora gehiago tardatzea, baina ge kalitatea zaindu nahian gabiltza.

S. Gabiola

# Gizaburun egin daitekeen gauza bakarra frontoira joatea da



# ...baina gehienetan okupaturik egoten da

Gu 8. mailan gabiltzan bi neska gara. Nahiz eta Gizaburukoak izan, Lekeitioko eskolan ikasten dugu. Gure eskolan 500 pertsona gabiltza, gutxi gora-behera, pentsa daitekeenez oso handia da. Egunean zazpi ordu igarotzen ditugu eskolan; ordu hauek ikasteko eta lagunekin egoteko erabiltzen ditugu, gure herrian ez baitugu gure adineko lagun gehiago.

Ordu horietatik kanpo badago beste bat tailerretan edo kiroletan ibiltzeko. Ekintzak egiteko eskolak uzten digu materiala. Guk, adibidez, futbolean jolasten dugu, baina hortik aparte saskibaloia, volley-ball-a, zeramika, pintura eta mahaiko jokuak (partxis, domino,...) daude.

Neguan ez dugu gauza askorik egiten herrian eguraldi txarra dela-eta. Udan berriz, frontoira joaten gara palan edota futbolean jokatzera, asko gustatzen baitzaizkigu kirol horiek.

Udan Gizaburun egin daitekeen gauza bakarra frontoira joatea da, baina hau ere gehienetan okupaturik egoten da. Beraz, Lekeition hondartza dagoenez, bertara joaten gara lagunekin.

Lekeition udan jende berri asko ezagutzen dugunez, oso ondo pasatzen dugu.

Pentsa daiteke nahiago izango genukeela Gizaburun eskola bat edukitea baina hori ez da horrela. Orain lagunak Lekeition ditugunez, nahiago dugu Lekeitioko eskolan ibili. Gainera, hemen eskola bat egitea alferrik izango litzateke, jende gutxi garelako eta nahasirik ikasi beharko genuke eta gure ustez horrela ez genuke askorik ikasiko. Hala ere, etorkizunean egitea pentsatuko balute, tokirik egokiena frontoiaren alboan izango litzateke.

Gizaburuagan 1995eko urtarrilak 24

**Leire Bengoetxea eta Oibar Egia**



**Txomin Errota, Munitibarrera etorri zanean errota baten hasi zan beharrean eta hortik izena, Txomin Errota. Txomin Altzibar Albizu, 1985ean jaio zan Itziarren. Bere aita bertakoa zan, Jose Mari eta ama Lasturkoa, Manuela. Itziarren jaio bazan be, bederatzi urtegaz alde eben Itziarretik Elgoibarrera eta bertan egin zituen hurrengo zazpi urteak. Bere bizitzan leku askotan ibili da morroi, bederatzi urtetan beste hainbat lekutan. Esate baterako Elgoibartik Berritura joan zan, Markinako Veganean be egon zan, Motriku inguruko Olatzen, Burgon...**

# Atxia motxia perolipan Txomin Altzibar errotan

Aizanean be holako beharretan ibili zan. Han Santa Kurutz jaietan musukitarrea joten eban neska koadrilagaz; baeukan gainera amistadetxoa bertako neska bategaz, Ibarre etxekoagaz. Aizarnako jai batzuetan zera esan eutson bere mutil lagun batek: "Gaur Ibarrera ez bagoaz, gaurko gastuak neuk ordainduko dituat." Ez zan ez neska laguna bisitatzera joan eta bera eta bere laguna zein baino zein moxkor handiagoz joan ziren etxera; han amaitu zan neska lagunaren kontua. Bertan eban ugazaba moxkorra zan eta urte luzea izan zan hangoa, domekak jai eta egunero hamaiketakoa, baso bete ardao eta katilukada saldea, izan arren. Lau behi, idi pareja eta zekor bat izan zituen bere kargu.

Zestoan bertako bainuetxean egon zan baina ez bainuak hartzen, txarriak gobernetan baino. "Txarri asko eukitten zuten han" gogoratzen dau Txominek.

Kostaldean be ibili, Ondarrun hain zuzen be, bertako faktorian. Garai haretan Ondarrun portugaldar eta galiziar asko ebilela gogoratzen dau. Jendea maletekin eta be heltzen zan bertara eta hareri laguntzen be ibili zan. Bate ardao partitzen be beste lagun bategaz, zaragiekin eta. Orduan ez egoan ba botilarik orain legez. Bere lagunak gogaitu egin eban gitxi irabazten ebalako baina Txomineri eskatu eban dirua agindu ei eutsen eta geratu egin zan. "Garai haretan automobilean ibilten ginen partitzen, Luisito txofer zela."

Moilan be ibili zan, moila luzatzeko bloke handiak eta altxetan. Behan gainera istripu bat be izan eban: "Bloke handi bati katea pasatu behar nion azpitik, bertan katea(tu) nintzen eta zortzi metroko altueratik jausi nintzen. Hilabete egin behar izan nuen geldi eta ugazaba egunero etorten zitzaidan etxera".

Eskolara ere ez zan joan. Lehenengo behi zain egoten zan etxean eta hamasei urtegaz etxetik kanpora joan zen. Morrontzarako tratuak urtebeterako izaten ziren. Morroi egunean Gabonetan joaten zan etxera, ugazabak emoten eutson makailana makilan lepoan hartuta, Natibitate egunean txokolatea jan eta buelta.

Txomin Errotak ez eban soldadutzarik egin, letratik libratu zan. Orduan soldadutzarako edadean gazte ugari egoten zan eta sorteoz libratzen ziren batzuk. Baina munitibartar batzuk urteetan engainatuta

> **"Ni neu dantzan ez nintzen ona baina bai neska laguntzen. Mosurik edo emoten hasi ezkero, txaloa."**



**Idiekin proban be egiten eben, Markinan, jaietan. Behin beste probalari batek zera esan eutson zozketa egin ondoren: "Zozketan azkanengo eta gero be azkanengo" baina hori esan eutsona bera geratu ei zan azken, nahiz eta Txominen karreteroagaz tratua eginda egoan.**

eukí ditu, taliarik ez ebala emon esanda. Aitzera ez jako falta, ez: ondo gizon izatea da.

Ondarrean atrapatu ebazan gurreak eta karreteroak behar zituenez, berako jatekoa emoteko izendatu eben, zeregin honetan Arteazinoo heldu zan eta han lagun bati gaztainik eta egoan galdetu eta gero, baietz esan eutsen legez, Txomin Artean geldite zan eta lagunak segidu eban aurrera, Bilboraino.

Egoteagaitik kartzelan be egon da dago Txomin Errota, ez gaizkilea izatearren, beharra egitearren baino. Sasoi baten hiru sozio ibili ziren basoetan beherrean, pinudiak ereisi eta gero sei idi buztanigaz ataraten zituen. Azpiltze inguruan ebizeza guardia zibilak etorri, atxilotu eta kartzelara eroan zituen, baina laster atera zituen.

**Morroi egoanean Gabonetan joaten zan etxera, ugazabak emoten eutson makailaua makilan lepoan hartuta, Natubitte egunean txokolatea jan eta buelta.**

Idiekin proban be egiten eben, Markinan, jaietan. Behin beste probalari batek zera esan eutson zozketa egin ondoren: "Zozketan azkanengo eta gero be azkanengo" baina hori esan eutsona bera geratu ei zan azken, nahiz eta Txominen karreteroagaz tratua eginda egoan.

Plazatik bizi izatea ez zan erreza, idiek zortziak behin sakada bakea jaten ei eben eta plazan tranpa ugari egiten ei zan.

Lehengo garaiak eta oraingoez berbetan bai, lehengoari be larregia eta oraingoari be larregia deritzo, lehen kate larregi eta orain askatasun larregi.

Domekero egiten ziren erromerietan. "argitan erromeria eta iluntzean etxera". Dino lehengo erromerietan ez egoala andreei ikuterik, pekatu mortala zala esaten ei eutseen, agarrauak eta dantzan egitea. "Ni neu dantzan ez nintzen ona baina bai neska laguntzen. Mosurik edo emoten hasi ezkero, txaloa."

Orain Mallabiarren bizi da, gerra ostean etorri zan, bertokoa da bere emaztea eta, Maria. San Bartolomeetan ezagutu eban eta bizikletaz etorten zan bera bisitatzera.

Ezkontza egunean ondo pasatu eben. Sakristaua konbidatu eben ezkontbazkarira eta honek abadeak lapurrak zirela esan eta bazkaldu eta gero besapean hartu ogia eta joan zan etxera.

Aspaldion jubilatuta dago eta "Hase Goenkale horraitino" hutsik barik ikusten ei dau.

**J. Onaindia eta M. Mallea**













# Douglas izeia

* Espeziea: Pseudotsuga menziesii.

* Berezko eremua: Izatez, Ipar Amerikeetakoa da, Ozeano Barearen eta eta Mendi Harritsuen artekoa.

* Izaera: Argizalea (heliofiloa). Behar duen gauza bakarra babes naturala izan daiteke, haizeak landare txikiei kalte egitea eragozteko.

* Sustraien egitura: Sustraien egitura eta banaketa nahiko lurrazalekoa eta gainekoa da.

* Altuera: Amerikeetan 100 metrotik gora luzatu daiteke. Hemen, ostera, 50-55 bat metro hartzen ditu, oraindik izei zahar zaharrik ez dagoen arren.

* Klima: Klima hezea, garaiera txiki edo ertainekoa (0-1.600 m.) behar du. Gerizperriak, iparraldera begira dauden lekuak, ditu nahiago. Urteko, 800-1.200 arteko pluviometria behar du eta batezbesteko tenperatura 8-9ºC-takoa. Dena dela, -20º-25ºC-raino jasan ditzake. Haizearekiko sentibera da.

* Lurra: Lur buztintsuak, arinak, ondo drainatuak eta sakonak ditu gogoko.

* Biziraupena: Luzaro bizi diren zuhaitzak ditugu. 300-500 bat urte iraun dezakete.

* Hazkundea: Kalitate handiko basoetan urteko eta hektareako 20 m.tik gora eman ditzake eta 60 urtetik aurrera, 1.200 m³/ha zur ematen du.

* Basogintza: Udazkenean landatzen da 3 urteko landarez, hektareako 1.100 landare sartzen direla. Baso garbitzeak handik 3-4 urtera egiten dira. Lehenengo inhausketa 8-10 urtera. Bigarrena 15-20 urtera lehenengo mehazketarekin batera. Hirugarrena, ostera, zuhaitzak 15-16 metro hartzen dituenean, lehenengo 7 metroak inhaustuko direla. Mehazketak egingo dira ebaketa aldira arte, azkenerako 150-200 landare hektareako utzita. Ebaketa 50-60 bat urtera egiten da.

* Erabilpenak: Egur zati eta enbor txikiak birrindu egiten dira, gero paper-pasta edo oholak egiteko. Neurri handiko enborrak zerratzeko erabiltzen dira. Oso ezaguna da zur hau mundu guztian *Oregon pinua* eta *Douglas fire* izenekin.

Pedro M. Albizu